

UDALEK ETA BESTE KOLEKTIBO EDO ERAKUNDE BATZUK ESKOLA-MAPA ALDATZEKO ESKAERA EGITEKO PROTOKOLOA

Hezkuntza-unitate berriak jasotzen dituen administrazio-espeditentea izapidetzea eta onartzea hezkuntza-arloan eskumenak dituen Departamentuan kargua duen Kontseilariaren eskumena da. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluan araututakoaren arabera, beharrezkoa da hezkuntza-arloan eskumenak dituen Nafarroako Gobernuako Departamentuak dagokion administrazio-espeditentea izapidetzea.

Aldaketek administrazioaren jardueran duten eragina kontuan hartuta, bai ikasleak onartzeko urteko ebazpenak argitaratzean, bai eskola-garraioko kontratuak aldatzean, bai ikastetxeak egokitzean eta bai horiek ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak aztertzean, Hezkuntza Departamentuak protokolo hau ezarri du erakundeek eskola-mapa aldatzeko eskaerak jasotzeko:

Eskabideak aurkezteko epea:

Uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko izapideak hasia eskatzen den urteko apirilaren 1etik irailaren 20ra arte.

Eskaera izapidetzea:

Eskabidea eta dokumentazioa Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez (EOE) edo Nafarroako Gobernuko edozein erregistro-bulegotan izapidetu behar dira, eta Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuko zuzendariari zuzendu behar zaio. Hezkuntza Departamentuak, ezarritako protokoloarekin batera, eskabide-eredu bat emango du.

Erakunde eskatzaileak eta aurkeztu beharreko agiriak:

- Udalak: eskabidea eta proposamenaren arrazoiak, eta, horrekin batera, egindako proposamena osoko bilkuran onartu izanaren akta, alkatearen edo presidentearen eta idazkariaren sinadurekin.
- Beste kolektibo edo erakunde batzuk: eskabidea eta proposamenaren arrazoiak, dagozkion egiaztagiriekin batera.

Jardueren egutegia:

1. Hasierako foru-agindua: Hezkuntza Departamentuak prozedura hasi nahi den urteko irailaren bigarren hamabostaldian eskola-mapa aldatzea ahalbidetuko duen foru-agindua egiteko prozedurari hasiera ematen dion foru-agindua onartuko du.
2. Kasuan kasuko administrazio-unitateek emandako bideragarritasun-txostenak: azpiegituren eta garraioaren arloan eskumena duten zerbitzuek, bai eta hezkuntza-ikuskaritzaren arloan eskumena duten zerbitzuak ere, urteko urriaren 15a baino lehen emango dituzte proposatutako aldaketen bideragarritasunari buruzko txostenak.
3. Era berean, Hezkuntza Departamentuak inplikaturako udalei eskatuko die izapidetu beharreko eskaeraren balorazio-txosten bat egin dezatela; eta txostenean bertan, arrazoituta, eskabidearekiko jarrera adieraziko dute.
4. Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakia eta dagozkion txostenak erakunde eskatzaileen esku jarriko ditu, eta alegazioak aurkezteko epea irekiko da.
5. Hezkuntza Departamentuak azaroaren lehen astean eskola-mapa aldatuko duen foru-aginduaren zirriborroa helaraziko dio Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atariari, jendaurrean jar dadin.

6. Eskola Kontseilua izapidetzea. Gardentasun-atarian ekarpenak egiteko epea bukatukoan, dagokion txostena egin ondoren, Nafarroako Eskola Kontseilura bidaliko da, nahitaezko irizpena eman dezan.

7. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duen foru agindua argitaratzea. Eranskin berria, nolana ere, hurrengo ikasturtean onartua izateko eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehen jarri beharko da indarrean.

Implementazioa:

1. D eredu berria hornitzeko behar den aurrekontua dagokion ekitaldiko aurreproiektuan jasoko da.

2. Hezkuntza Departamentuak aholkularitza emango dio D eredu berria hartuko duen ikastetxeko zuzendaritza-taldeari, eta ezarpen-prozesu osoa babestuko du.